

**ANA**  
ASOCIACIÓN  
NAVARRA DE  
AUTISMO

Monasterio Urdax 36, 1º B  
31011 Pamplona · Navarra  
T 631 172 864  
info.ana@autismonavarra.com  
[www.autismonavarra.com](http://www.autismonavarra.com)  
@autismonavarra @alegriamuda



Iruñean, 2015ko urtarrilaren 21

Zuzendari agurgarria:

Nafarroako Autismo Elkartetik (NAE) ilusio handiz lanean ari gara sindrome honen ezagutza zabaltzeko, gure gizartean autismodun pertsonen integrazioa hobetzeko asmoz. Horretarako garrantzitsua da gatzetxoei informazioa eman eta kontzientziatzea. Hau dela eta, Autismoaren Nazioarteko Eguna (apirilaren 2a) ospatzeko, NAEk **autismoari buruzko zabalkunde eta sentsibilizatorako IV Marrazki Lehiaketa** antolatu du. Sari banaketa **apirilaren 5ean larunbata**, izango da Iruñeko Gazteluko Enparantzan.

NAE-tik, deialdi hau zuzentzen duzun ikastetxeko ikasle, irakasle eta orientatzaileen artean zabaltzera gonbidatzen zaitugu, ekimen hau zuretzat interesgarria eta gustukoa izango delakoan. Marrazkiak jasotzeko azken data **martxoaren 20a** da.


Nafarroan 250 ume inguru daude autismoarekin, hori dela eta, edozein lan ez da aski gainontzeko umeei autismoa zer den azaltzeko.

Honekin batera lehiaketaren oinarriak atxikitzen ditugu, hala nola, azalpen testu bat eta interneteko hainbat lotura materiala aurkitzeko, 6 eta 14 urte bitarteko umeei autismoa zer den azaldu ahal izateko. Zure esanetara jartzen gara sor litekeen edozein zalantza argitzeko edo edozein informazio osagarria emateko, lehiaketa honi buruz, gure Elkarteari buruzkoa edo autista espektroko trastornoari buruzkoak orokorrean.

Gure web orria ere bisita dezakezue: [www.autismonavarra.com](http://www.autismonavarra.com)

Agurrik beroena,

Amaya Ariz Argaya  
Nafarroako Autismo Elkarteko Lehendakaria



**ANA**  
ASOCIACIÓN  
NAVARRA DE  
AUTISMO

Monasterio Urdax 36, 1º B  
31011 Pamplona · Navarra  
T 631 172 864  
info.ana@autismonavarra.com  
[www.autismonavarra.com](http://www.autismonavarra.com)  
@autismonavarra @alegriamuda



## **Autismoari buruzko zabalkunde eta sentsibilizaziorako IV Marrazki Lehiaketaren oinarriak**

1. Lehiaketa 6 eta 14 urte bitarteko umeei zuzendua dago.
2. Autismodun pertsonen integrazio soziala bultzatzen duen testu edota marrazkia izango da eginbeharreko lana, DIN A4 tamainako paperean edo kartulina finean.
3. Marrazkietan erabilitako teknika librea da.
4. Marrazkiaren atzealdean, **parte-hartzailearen izena, adina, ikastetxearen izena eta parte-hartzailearen kontaktu telefono bat** adierazi beharko dira.
5. Lanak Nafarroako Autismo Elkartera, Iruñeko Urdaxko Monasterioa kalean 36, 1.B, bidali behako dira **martxoak 20a baino lehen**.
6. Sari banaketa apirilaren 5ean, larunbata, izango da Iruñeko Gaztelu Enparantzan, Autismoaren Nazioarteko Eguna ospakizunari lotutako ekitaldian.
7. Sariak hiru mailatan banatuko dira parte-hartzaileen adinaren arabera (6-8 urte, 9-11 urte eta 12-14 urte).
8. Epaimahaia Nafarroako Autismo Elkarteko Zuzendaritza batzordeak osatuko du.

Sus datos de carácter personal forman parte de nuestro fichero, de conformidad con lo dispuesto en la Ley Orgánica 15/99, con la finalidad de hacer efectiva nuestra relación profesional. Los destinatarios de esta información únicamente los profesionales y la Junta de ANA (Asociación Navarra de Autismo), garantizándole en todo momento la más absoluta confidencialidad. Usted puede ejercer los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición en la siguiente dirección ASOCIACIÓN NAVARRA DE AUTISMO, Monasterio de Urdax 36, 1º B, 31011 Pamplona (Navarra).

Entidad subvencionada por:



**ANA**  
ASOCIACIÓN  
NAVARRA DE  
AUTISMO

Monasterio Urdax 36, 1º B  
31011 Pamplona · Navarra  
T 631 172 864  
info.ana@autismonavarra.com  
[www.autismonavarra.com](http://www.autismonavarra.com)  
@autismonavarra @alegriamuda



### Lan egiteko materialen interneteko loturak

1. Arthur-en bideoa: <http://www.youtube.com/watch?v=vLZ0YyIQQvM>
2. “Mi hermano tiene autismo” liburua: <http://www.autismonavarra.com/wp-content/uploads/2011/12/Mi-hermano-tiene-autismo.pdf>
3. Antoniaren bideoa, autismodun neska bat: [http://www.youtube.com/watch?v=oxWb9J9\\_b08](http://www.youtube.com/watch?v=oxWb9J9_b08)
4. AFANYA – “El trabajo con niños con Trastorno del Espectro Autista”  
:<http://www.youtube.com/watch?v=eoyY6MPOZS8&feature=related>

## NIK AUTISMODUN LAGUN BAT DUT

### Zer da autismoa?

Autismoa ume batek jaiotzetik duen desgaitasun bat da. Autismodun umeak zure eta nire antza handia du, baina autismoak bere garunak lan egiteko modua aldatzen du.

### Nola hartzen dute umeek autismoa?

Inork ez daki zerk sortzen duen autismoa. Mediku eta zientifikoak erantzunaren bila ari dira. Beraiek badakite, autismoa beste pertsona batetik ezin dela hartu, katarro bat bezala. Ohikoena umea autismoarekin jaiotzea da.

### Nolakoa da autismodun umea?

Autismodun umeak beste umeen berdinak dira modu askotan. Beraiek gauza asko atsegin dituzte zuk bezala, urtebetetze festak, igeri egitea eta Disney World-era joatea.

Batzuetan autismodun umeek arazoak dituzte gauzak ikastean eta ezin dute argi hitz egin.

Beraiek zaratak eta soinuak egin ditzakete, ezin dutelako hitzen bidez adierazi zuk eta nik bezala. Batzuetan hitz berdinak edo soinuak etengabe errepikatzen dituzte beraientzako zaila delako gelditzea.


Autismodun ume batek, ezin hitz egin ahal izateak ez du esan nahi zuk esaten duzuna ezin entzun edo ulertu dezakeenik. Autismodun umeek gauza batzuk beste modu batetara egiten dituzte beste umeekin alderatuz, baina lagunak izatea eta gauza dibertigarriak egitea atsegin dute, nahiz eta zuri esateko gai ez izan.

### Nola izan naiteke autismodun ume baten laguna?

### Nola izan naiteke autismodun ume baten laguna?

Sus datos de carácter personal forman parte de nuestro fichero, de conformidad con lo dispuesto en la Ley Orgánica 15/99, con la finalidad de hacer efectiva nuestra relación profesional. Los destinatarios de esta información únicamente los profesionales y la Junta de ANA (Asociación Navarra de Autismo), garantizándole en todo momento la más absoluta confidencialidad. Usted puede ejercer los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición en la siguiente dirección ASOCIACIÓN NAVARRA DE AUTISMO, Monasterio de Urdax 36, 1º B, 31011 Pamplona (Navarra).

Entidad subvencionada por:



**ANA**  
ASOCIACIÓN  
NAVARRA DE  
AUTISMO

Monasterio Urdax 36, 1º B  
31011 Pamplona · Navarra  
T 631 172 864  
info.ana@autismonavarra.com  
[www.autismonavarra.com](http://www.autismonavarra.com)  
@autismonavarra @alegriamuda



Eskolan, autismodun umeez lagunduko dien laguntxo edo kide baten beharra eduki dezakete. Zu laguntxo bat izan zaitezke: gustuko dituen jolasetara jolastuz (boloetan, futboleak, etab.), pazientzia edukiz eta atsegina izanez, gelan bere ondoan eseriz, etxean bisitatuz, zure etxera jolastera gonbidatuz (pilotarekin, gurdiekin, etab.)

Autismodun ume baten laguna izatea da, laguntzeko egin dezakezun gauzarik onenetarikoa; zuk ere gauza asko ikas ditzakezu zure autismodun lagunaz!

### Autismoa kentzen da?

Umeak betirako edukiko du autismoa. Hazten diren heinean, hainbat gauza ikasiko dituzte, irakurtzea, matematikak eta hitzak letreiatu adibidez. Beraiek, hazi eta lanak edukiko dituzte, bizilagunak izango dira eta zu bezalako lagunak beharko dituzte. Estatu Batuetan, 400.000 pertsona inguruk autismo dute, hauek pertsona nahikoak dira Amerikar futboleko sei estadio betetzeko. Munduan zehar autismoa duten pertsona asko daude. Mutiko gehiagok dute autismoa neskek baino. Beraiek txiroak, aberatsak, zuriak, beltzak, gorriak edo marroiak izan daitezke.

Garrantzitsuena, autismoa duten umek, beste edozein ume bezalakoak direla gogoratzea da. Beraiek, gainontzeko umeez bezala gauza asko egitea atsegin dute.

Nila Benitok idatzia, 1999. (813)974-7926 Cristina Muñozek itzulia, 2000. Brumilda Rodríguezek errebisatua, 2007..

[www.autismonavarra.com](http://www.autismonavarra.com)

<http://laalegriamudademario.blogspot.com.es/>

Twitter: @alegriamuda y @autismonavarra

Facebook: <https://www.facebook.com/pages/Asociaci%C3%B3n-Navarra-de-Autismo-ANA/267996259925713?ref=hl>

Sus datos de carácter personal forman parte de nuestro fichero, de conformidad con lo dispuesto en la Ley Orgánica 15/99, con la finalidad de hacer efectiva nuestra relación profesional. Los destinatarios de esta información únicamente los profesionales y la Junta de ANA (Asociación Navarra de Autismo), garantizándole en todo momento la más absoluta confidencialidad. Usted puede ejercer los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición en la siguiente dirección ASOCIACIÓN NAVARRA DE AUTISMO, Monasterio de Urdax 36, 1º B, 31011 Pamplona (Navarra).

Entidad subvencionada por:

